

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Rousset pozik agertu da Nafarroa Akitania-Euskadi euroeskualdean berriz sartzeko erakutsitako asmoagatik

Barkos eta Rousset lehendakariak Bertizko Jauregian bildu dira gaur arratsaldean

Viernes, 23 de octubre de 2015

Nafarroa Akitania-Euskadi euroeskualdean berriz sartzeko eskaera izan da gaur arratsaldean, Bertizen, Foru Komunitateko Uxue Barkosek eta Akitaniako lehendakari Alain Rousset-ek egindako bilkuraren ardatz nagusia.

Nafarroako Lehendakariak eskerrak eman ditu Akitaniako lehendakariak Foru Komunitatea

euroeskualdean berriz sartzeko eskaerari egindako "harrera bikainagatik"; izan ere, Frantziako eskualde horrekin interes estrategiko erkideak partekatzen ditu, eta Foru Komunitateari garapenerako aukera handiak eskaintzen. Euroeskualdean sartzeari buruz, Barkosek azpimarratu du prozesua eskaera Nazioko Gobernuari helaraziz hasiko dela, eta ondorengo aztertuz: Nafarroa nola sar daitekeen euroeskualdearen barnean jadanik martxan dauden proiektuetan. Horrekin guztiarekin, prozesua zenbait hilabetez luzatuko da.

Barkosek uste du Foru Komunitateak euroeskualdeko lankidetzaproiektuetarako 500.000 euro inguru jarri beharko dituela urteko, "onargarria" den zifra bat, Lehendakariak esan duenez, "Nafarroari aukera handiak irekitzen baitzaizkio".

Europako funtsak eskuratzeko sarbide gehiago

Bestalde, Rousset Lehendakariak "pozik dagoela" aipatu du Nafarroak euroeskualdean sartzeko erakutsitako asmoagatik; izan ere, "Europaren barnean pisu handia" du, eta Foru Komunitatea bertan sartuta,



Akitania eta Nafarroako lehendakariak Bertizko toki nagusietan ibili dira.



Bilkurako une bat.

itun honek aukera handiagoak eskainiko dituela proiektu erkideetarako Europako Erkidegoko finantzaketa eskuratzeko orduan.

Akitaniako lehendakariak mahai gainean jarritako ekimenen artean, Roussetek azpiegiturak nabarmendu ditu, trafiko astuna errepidetik trenbidera desbideratzeko aukera bereziki. Gainera, ikasleen artean trukeak egiteko aukera ere aipatu ditu, "gaztelania eta frantsesa sustatzeko nagusi den ingelesaren aurrean", unibertsitateen arteko lankidetzaz gain.

Rousset-ek mugaz gaindiko lankidetzara zabalduko beste alor batzuk ere aipatu ditu, adibidez: biomasa eta baso-kudeaketa, nekazaritza-elikagaien industria, energia berriztagarriak eta automobilgintza

Barkos Lehendakariak erakundeen artean arratsalde honetan egindako bilkura baliatu du Rousset-i Nafarroako Gobernuaren doluminak helarazteko gaur goizean Puiguessin-en (Akitania) gaur goizean gertatutako trafiko-istripuagatik. Ezbehar horretan 43 pertsona hil dira, eta egoera horrengatik lehendakaria Bertizen egon izana bereziki eskertu dio Barkosek.

Erakundeen arteko bilera-erronda

Gaur arratsaldekoa, Barkos Lehendakariak alboko komunitateetako agintari gorenekin egindako hirugarren erakunde arteko bilkura da, [Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakari](#) Iñigo Urkullurekin (irailak 25, Iruña) eta [Aragoiko presidente](#) Javier Lambásekin (urriak 2, Tuteran) elkartu ondoren.

Oraingo honetan, Bertizko Jaurerria izan da aukeratutako lekua, frantsesentzat turismo aldetik oso erakargarria den toki.

Bertizko Jauregia etxetzar dotore barroko bat da, XVIII. mendekoa, eta Bertizko Jaurerriko eraikin nagusia da, parke naturaleko erdigunean eta Red Natura 2000 Europako Kontserbazio Bereziko Gune; 2.040 hektarea ditu, Bertizarana ibarrean dago (Nafarroako ipar-ekialdea), eta Baztanetik oso hurbil, Baztan-Bidasoa ibaiarekin muga eginez. Haren inguruan, 3,4 hektareatako lorategi bereziak daude, munduko kontinente guztietako espeziez osatutakoa.

Finka eta eraikina Nafarroako Gobernuarenak dira, Ciga familiak dohaintzan emanda. 1984an, ingurua Parke Natural izendatu zuten. Bertan, hainbat ekintza egiten dira ingumenari lotura: bisitak, txangoak, topaketak, erakusketak...

Galería de fotos



Lehendakarien agerraldia.